



# Zifratan gakoa

2008 urteko ekonomia eta gizarteko  
zifra adierazgarriak



112

2008an hiru egunetik behin langile bat hil zen lan istripuz; guztira, 112 hildako. Heriotza kopurua 2007koa (117) baino apalagoa izan arren, zifrak aurreko urtekoen parekoak dira. Euskal Herrian lan istripuetan hildakoak, herrialdeen arabera: Araban 18, Bizkaian 44, Gipuzkoan 27,

Iparralden 5 eta Nafarroa Garaian 18.

Iturria: LAB sindikatua.

Hegoaldean langabezia-tasa %8,3koa izan da. 2007ko laugarren hiruhilekoaz geroztik, 40.000 langabe gehiago daude Hegoaldean; guztira, 113.700. Hazkundea %2,9koa izan da. Guztizkoari begira, emakume eta gizonezkoen proportzioa nahiko parekoa bada ere, urtebeteko epealdian, gizonezkoen langabezia tasa %62,5 igo da eta emakumezkoena, aldiz, %37,5. Lehenengo aldiz, langabeen artean gehiago dira gizonezkoak.

Iturria: ELA sindikatua. Egoeraren Azterketa txostena, 112.zbk.



Argazki Press

40.000

%9

Euskal Herriaren buruaskitasun energetikoa %9koa da soilik, eta beraz, %91 inportatu egiten da. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako burujabetasun energetikoa %5ekoa da, Nafarroa Garaia %15ekoa, eta Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko %7 ingurukoa. Auto-hornikuntza tasa, berriz, %7 ingurukoa da Euskal Herrian, eta Europako Batasuneko aldiz, %50ekoa.



Iturria: Bueno Gorka (2008), Energia urriko mundu baterako gida, Manu Robles-Arangiz Institutua.

%133,3

Ondasun eta zerbitzuen esportazioak pisu handia izaten jarraitzen du Euskal Herriko ekonomian. 2006-2007 epealdian Euskal Herriko kanpo saldoa bikoiztu egin zen, hain zuzen ere, %133,3. Igoera nabarmena da, kontuan hartuta denbora tarte berean EBan hazkunde bere horretan mantendu dela eta AEBetan jaitsi %8. Japoniak, Euskal Herriak bezala, goranzko joera izan du, baina hazkunde gurea baino dezente apalagoa izan da: %31,3.

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, Nafarroa Garaiko Estadistika Institutua, INSEE.

26.282

Populazioaren hazkunde hori kostaldean gertatu da bereziki. Azken urteetan Iparraldeko ekonomia garapena kostaldearekin eta zerbitzuen sektorearekin oso lotuta dagoela aintzat hartuta, datu esanguratsua da. Hori da, hain zuzen, Baiona-Angelu Biarritz aldearen kasua. Urte tarte horretan hazkundea %6,3koa izan da.



Iturria: INSEE

Argazki Press



Euskal Herrian 655.746 pentsiodun daude, biztanleriaren %21,65: Araban 61.324, Bizkaian 257.044, Gipuzkoan 162.846, Iparraldean 58.947 eta Nafarroa Garaian 115.585.

Jasotzen diren pentsioen batz bestekoa, berriz, 876,24 eurokoa da. Altuena Bizkaian jasotzen dute (912,74 €), eta baxuena, berriz, Iparraldean (800 €).

Iturria: Barrenetxea Sandra, Elorriaga Iñaki, Ruiz de Pinedo Iñaki (2008), Estudio sobre las condiciones de vida de las personas mayores y pensionistas, Ipar-Hegoa Fundazioa, Bilbo.

655.746

# %10,43

2004-2005 epealdian Euskal Herriko BPG erosteko ahalmen parekatua %10,43 hazi zen, inguruko eta mundu mailako herrialdeetan baino dezente gehiago. Euskal Herriko aberastasuna ia 7 puntutan bereizten da EBtik (%3,7), AEBtik (%4,6) eta Japoniatik (%3,6). Hurrengo urteetan krisiaren eragina neurtzean, datu honen eboluzioari erreparatu beharko zaio.

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT eta Datu Talaia



Argazki Press

60 urtetik gorako pertsona helduen artean, bakarrik bizi direnen %75,88 emakumezkoak dira Euskal Herrian. Bizkaian batzen da bakarrik bizi diren emakumezkoen portzentaje altuena, hain zuzen ere, herrialdeko guztizkoaren %77,88. Daturik apalena, berriz, Nafarroa Behereak du; guztizkoaren %62,26. Bakarrik bizi diren 60 urtetik gorako gizonezkoen kopururik altuena, beraz, Nafarroa Behereak du.

Iturria: Barrenetxea Sandra, Elorriaga Iñaki, Ruiz de Pinedo Iñaki (2008), Estudio sobre las condiciones de vida de las personas mayores y pensionistas, Ipar-Hegoa Fundazioa, Bilbo. Urtea 2001/1999 (Ipparaldea)

# %75,88

# %3,67

Emakumeen langabezia tasa %3,67 izan zen 2007an, Euskal Herrian. 2005etik %52,9ko jaitsiera izan du. Jaitsiera hori alde handiarekin bereizten da gainontzeko herrialdeetatik. EBn, AEBn eta Japonian hazkundea %80-88 artean mantendu den bitartean, Euskal Herrian hazkundea %47,1ekoa izan da.

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT.

# 251.970



2006. urtean, 251.970 saltoki zeuden Euskal Herrian. Establezimenduen hiru laurdenak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan daude kokatuta, ehuneko ia hogeia Nafarroa Garaian eta gainontzeko ehuneko ia zazpia Ipparaldean. Datuak langile kopuruaren arabera

neurtuz gero, saltoki gehienak 0-2 lagunez osatuta daude herrialde guztietan; %59,4 Ipparaldean, %77 Nafarroa Garaian eta %74,4 Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE.

# 1.749,5

10 urteko epean (1995-2006), Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa izan dira Nafarroa Garaiko ekonomia-eremuen bezero nagusiak. Fakturazio osoaren %25,8 dago, 1.749,5 milioi €, batz best-



Argazki Press

Herrialde horiek Nafarroa Garaiko hornitzaile garrantzitsuenak izaten jarraitzen dute (%34,6). 2005etik 2006ra, ia %3ko hazkundea izan dute. Euskal Herriko herrialdeen arteko fluxuak esanguratsuak dira bertako ekonomia-eremuen sostengurako eta gure herriaren kohesiorako.

Iturria: www.c-interg.es



Argazki Press

1999-2006 artean, etxebizitza librearen prezioak %58ko igoera izan du batz best Euskal Herrian. Prezio igoerarik handienak Hegoaldean izan dira: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan igo dira gehien (metro karratuaren prezioa 1.569 €-tik 3.646 €-ra igo da), eta ondoren, Nafarroa Garaian (925 €-tik 1698 €-ra). Ipparaldean, azkenik, etxebizitzaren prezio igoera nabaria izan da (1.654 €-tik 2.871 €-ra), nahiz eta erlatiboki Hegoaldean baino portzentaje apalagoak azaldu.

Iturriak: MEEDAT/SESP, EPLS (hainbat urte). Datuak Akitania departamentuari dagozkie; Nafarroa Garaiko Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Saila, Espainiar estatuko Etxebizitza Ministerioa; Eusko Jaurtaritzako Etxebizitza eta Gizarteko Gaietako Saila. Eskaintza inbentarioari buruzko inkesta (hainbat urte)

# %74tik %132ra